

RUGBYA

Baionak Romans taldearen bisita
jasoko du gaur gaueko zortzietan

Donibane Lohizunek eta Miarritzek bihar jokatuko dute hirugarrena

Partidu bana irabazi eta beste bana galduta, euskal taldeak halamoduz ari dira Frantziako ligan.

Hirugarren ihardunaldian, Baionak Romans taldearen bisita hartuko du gaur, eta bihar jokatuko dira Donibane Lohizune-Corraz eta Montchanin-Miarritze partiduak. Sailkapenean gorantz egiteko aukera behar lukete hirurek.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Euskal taldeek orain arte Frantziako ligan jokaturiko bi partiduetarik, neurketa bana dute irabazita eta bana galduta. Oraindik ez daude puntu puntuan jokoari dagokionez, baina joan zen larunbatean Du Manoir Kopako norgehiagokan Baiona nahiko erraz nagusitu zitzaion Pab taldeari, 27-15.

Romans taldea Baionaren antzeko egoeran dago, bostgarren postuan euskal taldearen aurrekoa bait da sailkapenean. Hauek ere, partidu bat irabazi eta bat galduta. Iaz 39-18 nagusitu ziren lapurtarrak Saint Leon zelaian, bi taldeon arteko partiduan. Behar bada, orduan Baionak zelairatu zuen hamabostekoa eta gaur aterako duenaren artean aldaketa denente egon daiteke, zazpi edo zortzi jokalarri diferentek izan bait daitezke.



Baiona indarrean irtengo da Romans taldea menderatu asmoz.

BOB

Asier Altuna donostiarrarena izan daiteke baja azpimarragarriena.

**DONIBANE LOHIZUNE
ETA
MIARRITZE**

Biharko ihardunaldian, Donibane Lohizune-Corraz eta Montchanin-Miarritze norgehiagokak jokatu dira. Donibandarek joan den asteburuan jasandako porrotaren ondoren, Itxaropen Kopan, ligan bera baino okerrago sailkatuta dagoen taldea hartuko du. Corrazek jokatu-tako bi partiduak galdu egin ditu, eta euskaldunak nahiko itxaropentsu agertzen dira laugarren postutik gora egiteko, arratsaldeko hiruretan hasiko den partidua irabaziz.

Miarritzekoak kanpora joango dira Montchanin taldeari aurre egiteko. Jakina da kostaldekoak ez dabiltzala oso fin, baina oraindik ez dute zer-gatik kezkatu, bi ihardunaldi besterik ez bait dira jokatu, eta denboraldia oso luzea da. Ez litzateke harrigarria izango, bestalde, atzekaldean bederen aldaketaren bat egitea; fitxaturiko britainiarrak dagoeneko jokatzeko prest bait daude. Badaezpada eta taldearen norabidea zuzentzeko, bilera egin zuten direktiboek jokalarri eta entrenatzailearekin. Bestetik, Donostiako Bera-Bera taldea Katalunia aldera abiatu da, Monjuic-eko Natación antolatutako La Merced torneoan parte hartzeko.

ESKUBALOIA



Asteburuan etena izango du ligak, ASOBALek horrela erabakita. JOXEAN GOYA

ASOBALek ligako ihardunaldia
bertan behera uztea erabaki du

DONOSTIA

Espainiako Eskubaloia Kluben Elkartek (ASOBAL) liga txapelketa-ko bigarren ihardunaldia bertan behera uztea erabaki du, ohorezko mailako arbitroen arazoa konpondu arte. Liga hasi aurretik, ohorezko mailako hamaika arbitrok Espainiako Federazioko Zuzendari Teknikoaren dimisioa eskatu zuten, behar bezalako laguntza teknikorik ez zutela eta.

ASOBAL elkarteko agintariak liga txapelketa hastera lortu zuten, baina arazoa irailaren 19an egin behar zen bileran konpontzea eskatu zuten arbitroek, partidurik ez arbitratzeko mehatxupean. Espainiako Eskubaloia Federazioko lehendakaria, J. Lopez Ricondo eta ASOBALeko ordezkarien arteko bilera ez

zen egin, Lopez Ricondo ez bait zen agertu eta horren ondorioz arbitroek asteburu horretako ihardunaldian ez arbitratzea erabaki dute. Erabaki horrek gainera ez du denbora mugarik eta beraz, asteetako edo hilabeteetako kontua izan daiteke.

Ohorezko mailako taldeak arbitroen eskaeren alde agertu dira hasieratik eta gauzak behar bezala konpondu arte ez dute liga honetan parte hartuko. Ez da hau Espainiako eskubaloia ligak arazoak dituen lehenengo aldia. Iaz ere istiluak izan ziren Ricardo Marin jokalarriaren kasua zela eta, baina orduan ez zuen oraingo garrantzirik izan. Gauzak ez badira azkar konpontzen, teoriar munduko ligarik onena den horrek arazo larriak izan ditzake hurrengo urteetan, partehartzaile guztiak benetan itxura kaskarra ematen ari bait dira.

HERRI KIROLAK



GAZTEDI sokatira taldeak urrezko

domina lortu zuen Suitzako Stans hirian jokatzeko ari diren Europako Sokatira Txapelketan. Arabarrek 560 kiloko mailan eskuratu zuten urrea, beste 36 talderekin batera lehiatu ondoren. Gaztedik gogor lan egin du azkenaldi honetan eta lortu du emaitza paregabe hau. Gaztediren ondoren, Suitzako Nüreg eta Mosnag eta

Irlandako Killylough taldeak sailkatu ziren. Auzolan, Goierriko bi talde eta Gaztediren bigarren taldeak ere parte hartu zuten proba honetan. Atzo beste bi proba jokatu ziren Europako Txapelketa honen barruan, 640 eta 720 kilotako mailan hain zuzen ere. Mutriku, Gaztedi, Auzolan eta Goierriko taldeek 640 kiloko proban hartu zuten parte.

Aizkolari Txapelketa nagusirako
kanporaketa proba bihar Oñatin

DONOSTIA

Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa nagusirako kanporaketak egingo dira bihar Oñatin, arratsaldeko 6etatik aurrera. Goizetik artzain-zakurren lehiaketa egingo dute Oñatin bertan, 11etan hasita, eta bertara hurbiltzen direnek egunpasa ederra egiteko modua izango dute, arratsaldeko aizkol saioa ez bait da nolanahikoa izango.

Oñatiko polikiroldegian gaoi mailako aizkolariak ariko dira lanean, Euskal Herriko Txapelketa jokatzeko txartelaren bila. Mikel Mindegia, Donato Larretxea, Florenzio Narzabal eta Jaime Gorriti nafarrak eta Fausto Mugerza, Joxe Aranbarri 'Elorriaga', Anjel Arros-pide, Jose Manuel Erasun, Joxe Etxebeste, Joxemari Olasagasti eta Peñagarikano gipuzkoarrak.

Azken urteotan punta puntan ibili diren aizkolariak gehienak, eta baita haien mailara iristeko lanean ari diren gazte batzuk ere. Egin beharreko lana honakoa izango da: 54 ontzako bina enbor, 60 ontzako beste bina eta 72 ontzako beste bina. Sasoi betean



Mikel Mindegia.

plazaratzen ez denak sofritu beharko du sei enborrak ebakitzeko. Pago egurra izango da guztia, eta Esteban Saralegi leitzarrak hartu du enborrak Oñatiko polikiroldegira eramateko ardura.

Aizkolari bakoitza ze sasoitan dagoen igartzeko balio handia izan dezake biharko saioak, uda parteko desafio eta erakustaldiak atzera utzita. Sailkapena ziurtatzea izango da bihar helburua, baina saioa irabazteari ere ez dio inork muzin egingo.